



• ASTEKO GAIA •

Iraganeko ikurak Khetagurovoko eskolan, Hego Osetian.

Hego Osetia

Kosovoren zain

Ofizialki Georgiako lurraldea da baina osetiarrek Errusiako zati izan nahi dute. Moskuk errusiar pasaporteak luzatu dizkie jada, eta horrekin bozkatu zuten errusiar parlamentu hauteskundeetan joan zen hilean. Horixe da Putinek Kosovoren independentziari emandako erantzunetako bat.

“**JOLAS-PARKEA ERAIKI DUTE** georgiarrek albo-ko herrian. Nire etxeko balkoitik primeran ikusten da”, dio Alan Gassiev-ek, Hego Osetiako 20 urteko gazteak. Karruselera baino, askoz ere gusturago joango litzateke Gassiev georgiarrek herri berean ireki duten zinema-aretoa. Bere etxetik apenas dira 200 bat metro, erraz iritsiko zen arratsaldeko emanaldira. Baina Tskhinval-en bizi da, Hego Osetiako hiriburuan, eta Tamarasheni-n dago herrialdeko zinema-areto bakarra, georgiarren kontrolpeko herrian. Bi udalak elkarren ondoan dauden arren, *checkpoint* batek saihesten du bien arteko trafikiko oro. Gauzak horrela, Gassiev gaur ere ez da zinemara joango. Eta ez da georgiarrik ikusiko Tskhinvalgo Stalin kaletik paseatzen. Ez da harritzekoa, hala izan baita azken 15 urteetan.

1991n, Sobiet Batasuna desegin ostean, Georgiak independentzia aldarrikatu zuen, bertan bizi ziren osetiarren kezka piztuz. Batek ez ziren georgiarrak sentitzen, eta bestetik, euren anaia-arrebengandik, ipar osetiarrengandik, banatuta gelditu ziren. Georgiar armada gairitu eta gero, hego osetiarrek ere euren independentzia aldarrikatu eta lortu zuten. Milaka lagun hil ziren gatazka hartan, eta geroztik su-etena indarrean dagoen arren, ia astero errepikatzen dira georgiar eta osetiarren arteko tiroketak.

Egun, osetiarrak eta georgiarrak *checkpoint* nahiz errepide sare konplexu batek banatuta bizi dira; elkarren alboan, baina elkarri bizkarrak emanda. Oztupo fisikoak nahikoa ez eta bi herriok ordutegi desberdinak erabiltzen dituzte: Moskuko ordua osetiarrek eta Tbilisikoa georgiarrek. Tskhinvaldik Tamarasheniko zinera inoiz joan badaiteke, komeniko da ordubeteko aldeaz gogoratzea.

“Jolas-parkea eta zinema-areto hori bezalako inbertsio handiak egiten ari da Tbilisi bere kontrolpeko herrietan –dio Gassiev–. Helburua, erreala ez den Georgiako irudia eskaintzea gure jendea engainatzeko, osetiarrok gure independentziaz ahazteko”.

Osetiarrak *liluratzeko* kanpainaren barruan, 70eko hamarkadako Boney M talde arrakastatsuko kide batek jo zuen Tamarashenin joan den urrian. “Ez dut hemengo egoera oso ondo ulertzen, baina ohore handia da niretzat bakearen aldeko ekimen honek parte hartzea”, esan omen zuen Marcia Barrett abeslariak, 500 biztanle dituen herri georgiarrean. Osetiarrek, noski, ezin izan zuten joan, horretarako baitaude *checkpoint*-ak eta “etnia bakarreko” errepideak.

Georgiak independentzia aldarrikatzeak bertan bizi ziren osetiarren kezka piztu zuen. Ez ziren georgiarrak sentitzen eta ipar osetiarrengandik banatuta gelditu ziren

Trena ez dabil gerraz geroztik, eta Gassiev-ek errepide sare aldrebestu honen nondik norakoak azaldu dizkigu mapa baten gainean, Ipar eta Hego Osetia batzen dituen horietako batean: “Sobietar garaiko errepide nagusiak errepublika goitik behe-ra zeharkatzen du baina egun ezin du inork erabili, georgiar eta osetiar herrietatik igarotzen baita. Errusia barruan dagoen Ipar Osetiarekin harremana mantentzea ezinbestekoa duguenez, ezkerretik eta iparrerantz doan errepide bat eraiki dugu. Georgiarrak, aldiz, eskuinetik eta hegoalderantz doana erabiltzen dute Tbilisira (Georgiako hiriburura) joateko”. Horrelakoxea da Hego Osetiako egoera surrealista: eraikin zahar bat bi eskailera dituen, bertako bizilagunek elkar ez ikusteko eraikiak.

Stalin kaletik Moskuraino

Edozein hiriburuk bezala, Tskhinvalek ere bere hiribide nagusia dauka, Stalin kalea.



BORJA PORTUONDO



Tskhinval, Hego Osetiako hiriburua.

Hemen ugariak dira oraindik independentzia gerrak utzitako arrastoak: tiroz jositako fatxadak, paretarik gabeko etxeak, bai eta etxerik gabeko paretak, errausitutako antzerkia kasu. Nolanahi, Stalin kaleak bi kilometroko luzera du eta oraindik makina bat sorpresa aurki daitezke bertan. Panel handi batek Independentziaren Eguneko oso argazki bitxia erakusten du: Erdi Aroko zaldunen desfile bat egungo porlanezko gobernu-etxearen aurretik igarotzen. Osetiarrek diote alaniarren ondorengoak direla, eta harro daude denak Europa osoan zabaldu ziren zaldun trebe haietaz. Arreta deitzen du irudian errusiar banderak osetiarrekin batera agertzeak. Baina deigarriagoa da Putinen erretratu bera nonahi topatzea Tskhinvalgo erdigunean. Moskuk aspaldi luzatu zien errusiar pasapor-

Horrelakoa da Hego Osetiako egoera surrealista: eraikin zahar bat bi eskailera dituen, bertako bizilagunek elkar ez ikusteko eraikiak

tea hego osetiarrei; pasaporte hori eskuan zutela bozkatu zuten denek Moskuko parlamenturako hauteskundeetan joan zen abenduan, errusiar orok bezala. Errusia Batua, Putinen alderdia, nagusitu zen. Hego Osetian %92a eskuratu zuen KGBko lider ohiak.

“Erabateko independentzia urrutiko ametsa baino ez da osetiarrontzat –dio Teymuraz Dzodzиеv-ek, Engels kaleko bere bulegoan–. Ipar Osetiarekin batzea dugu lehentasuna orain, eta Ipar Osetia Errusian dagoenez...”.

Dzodzиеv Hego Osetiako Atzerri ministro-ordea da. Bere karguak aginduta dotore jazen da politikarien belaunaldi berriko gazte hau. Biziki atsegin ditu atzerriko hainbat rock talde eta bikain mintzo da ingelesez. “Gure aurrekontuaren erdia baino gehiago Errusiatik dator, bai eta hornidura gehiena ere.

Roki-ko tunela inoiz erortzekotan, akabo Hego Osetia!”, aitortu du Dzodzievek. Arrazoi osoa du, Kaukaso mendikate erraldoiak banatzen baititu Ipar Osetia eta Hego Osetia. Rokiko tunela, beraz, hegoaldekoen “oxigeno tutua” da. Ia edonork dauka senideren bat Ipar Osetian: Vladikavkaz-ko (Ipar Osetiako hiriburua) unibertsitatean ikasten duen semearen bat edo, maizago, lan bila hara emigratu duena. Handik bidaltzen duten dirua ezinbestekoa da, nekez bizi daiteke bestela hemen batez beste 80 euroko soldatarekin. Dirua, hornidurak eta senideen fluxua bypass errepidetik bideratzen dira, noski, georgiar herri guztietatik urrun gelditzen den horretatik.

Konponbidea aurki

Dzodziev ministro-ordeak oso ongi eza-gutzen du Eduard Kokoiti, Hego Osetiako presidentea. Sobietar borroka libreko txapeldun ohia da eta gerra-kriminaltaz hartzen dute georgiarrek, Hagako Auzitegira eraman nahi izan dute. Bestalde, Tbilisikiko Gobernua osetiarren arteko banaketa eragiten saiatu da lider alternatibo bat ezarriz. Horretarako, presidentetzarako hauteskunde “alternatiboak” egin ziren Georgiaren kontrolpeko herrietan. Dimitri Sanakoyev atera zen garaile. Georgiako agintearen aburuz, bera da Hego Osetiako “legezko agintari bakarra”.

Baina Kokoiti eta gainontzeko osetiarrentzat traidore bat baino ez da Sanakoyev. Antza, georgiarren kontra borrokatu zuen Independentzia Gerran, eta Hego Osetiako defentsa ministroaren kargua okupatu zuen gero. Hori ez ezik, orain 38 urte dituen gizon hau eskualdeko lehen ministroa izatera ere iritsi zen.

“Mozkorti eta ludopata bat baino ez zen hura –dio Kokoitik bere bulego ofizia-

Europako gatazka izoztuak

Sobiet Batasunaren erorketak lau gatazka piztu zituen Europa ekialdean. ARGIAk horietako buri buruzko erreportaje bana argitaratu du jada (Abkhazia eta Nagorno Karabakh), eta hauei batu-ko zaizkie ale honetako Hego Osetia eta datorren asteko Transnistria-ri buruzkoak.

Aldi berean, www.argia.com webguneko *Gatazka Izoztuak* kanal berrian lau eskualdeei buruzko erreportajeak aurkituko dituzue, bidaletako egunerokoarekin eta diaporamekin batera.





LANA PARASTAEVA



URTZI URRUTIKOETXEA

“Georgiak mendebaldetik inportatutako demokrazia eredu inposatu nahi digu. Baina eredu horrek ez du funtzionatzen hemen”

E. KOKOITI, HEGO OSETIAKO PRESIDENTEA

lean—. Milioika errubloko zorrak egin zituen kasinoetan, baina georgiarrek horiek guztiak ordaindu zizkieten eta hauen aldera pasa zen. Horrela ‘erosi’ zuten Sanakoyev”.

Agenda oso estuarekin dabil gaur Hego Osetiako presidentea. Bozkatzera joan da errusiarrek euren kuartelean egokitu duten hauteskunde-kolegioan. “Georgiak mendebaldetik inportatutako demokrazia eredu inposatu nahi digu. Baina eredu horrek ez du funtzionatzen Georgian, eta are gutxiago Hego Osetian. Kaukasoa da hau, ez genuke ahaztu behar mendetan bertako lege kodeari eutsi diogula”, hausnartu du Kokoitik.

“Hego Osetiako gatazkaren amaiera gertu dago —adierazi zuen Mikhail Saakashvili Georgiako presidentek joan den abenduan—. Hila-bete gutxiko kontua da”. Baliteke inbertsio berrien nahiz presidente “alternatiboaren” eragina berehalakoa izatea. Edo baliteke estatubatuarrek hornitu eta entrenatutako georgiar armada jada beste gerra baterako prest egotea.

Bikote mistoak

Georgiar eliza eder bat dago Khetagurovo herriko sarreran. Norbait ezabatzen saiatu bada ere, oraindik antzeman daitezke georgiar inskripzioen arrastoak bere harrizko pareta sendoetan. Alboko kanposantu elurtuan ordea, erraz bereizten dira hildakoen irudiak basaltozko hilarri beltzetan. Batzuk gerran eroritako soldaduak dira, uniformeak, fusila eskuan eta kemena begiradan. Kaukasoko edozein hilerri-tan legez, makina bat vodka botila daude lore sorten artean, joandakoen alde topa egin denaren seinale.

Herriko plazaren funtzioa betetzen duen lur eremuan hainbat herritar bildu dira, erretiratuak gehienak. Batzuk errepide erdian daude solasean. Zorionez, aldian behin pasatzen den gurdiren batek ez du inoiz arriskurik sortzen.

Goitik behera: Ipar eta Hego Osetia arteko muga, Rohiko tuneletik gertu; Eduard Kokoiti, Hego Osetiako presidentea, errusiar hauteskundeetan bozkatu ondoren; Tskhinval eta Tamarasheni banatzen dituen *check point*; eta Vladimir Gregoriev (erdian) Khetavurogo herrian.

Alaniarren ondorengoak

Egungo osetiarrak antzinako alaniarren ondorengoak dira, Erdi Aroan Europa osoan zabaldu eta Galizia nahiz Ipar Afrikaraino iritsi ziren zaldun trebeak. 600.000 osetiar daude gaur munduan, eta gehienak (500.000 inguru) Errusian dagoen Ipar Osetian bizi dira. Euren arbasoen hizkuntza indoeuroparra mantendu dute, farsi eta kurdieraren adar berekoa, eta alfabeto zirilikoz idazten dute. Osetiar gehienak kristau ortodoxoak dira. Dena den, talde sunita musulman sendoa ere badago Ipar Osetian.

Egun Kaukaso erdialdeko esparru txiki batean bizi dira osetiarrak, baina ugariak dira Europan utzitako tokien izenak. Frantzian soilik 30 toponimotik gora mantendu dira, "Alençon", "Allaines" edota "Allainville" kasu. Jatorri berekoa da Portugalgo "Alenquer", bai eta bretoierak mailegatu eta zabaldutako "Alan" izena ere.



“Sobiet Batasunean georgiarrak eta osetiarrok elkarrekin bizi ginen, bikote misto asko zeuden eta lana denontzat zegoen. Ez genuen ezertaz kezkatu behar –dio Vladimir Grigoriev-ek herriko denda bakarraren aurrean–. Egun Errusiatik jasotzen dudun 2.000 errubloko (60 euro inguru) pentsioagatik ez balitz, gosez hilko nintzateke. Bizitza osoa lanean eman eta gero ezin nuen imajinatu erretiroa hartzean bizirauteaz kezkatu beharko nuenik”.

Larunbata da, baina Khetagurovoko umeak eskolan daude, eskualdeko gainontzeko guztiak bezala. Hamaika sobietar oroigarri daude zintzilik eskolako paretetan: ohiko izar gorriak eta hainbat zuri-beltzeko argazki, Gerra Patriotikoko (Bigarren Mundu Gerra) heroien omenez. Hego Osetiako himnoaren letra duen afixagatik ez balitz, denboran 50

“Sobiet Batasunean georgiarrak
eta osetiarrok elkarrekin bizi
ginen. Egun Errusiatik jasotzen
dudan pentsioagatik ez balitz,
gosez hilko nintzateke”

VLADIMIR GRIGORIEV

urte atzera egin dugula pentsa genezake, batez ere Stalinen erretratu erraldoiari erreparatzean.

Ohiko txirrinak iragarri du eskolen amaiera eta ehunka haur igaro dira agintariaren begirada zorrozpean. Ez dute Sobietar garaia ezagutu, baina denek entzun dute Gerra Patriotikoa irabazi zuena osetiarra zela, ama georgiarra bazuen ere.

“Eta nola lortu zuten elkarrengana hurbiltzea Stalinen gurasoek?”, galdetuko zuen eskolan haur batek baino gehiagok. Galdera bera entzungo zen, agian, alboko georgiar herrian. Eskolak duela ordubete bukatu ziren han. ■

<http://www.argia.com>

helbidean, Europako lau gatazka izoztuei buruzko material multimedia.



TALLERES

Mitxelena s.coop.

Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000 • Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago poligonoa, 21 • Hernani -Gipuzkoa-

© 943 552 512 / 552 516 • Fax: 943 552 816 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com